# HITZARMEN MARKOA

BISCAYTIK PROIEKTUaren esparruan zerbitzu zehatzak jasotzeko

# CONVENIO MARCO

Para la adopción de determinados servicios en el marco del PROYECTO BISCAYTIK

Durangon, 2020ko irailaaren 18an

ALDERDIAK

**I.** Alde batetik, FUNDACIÓN BISCAYTIK - BISCAYTIK FUNDAZIOA (aurrerantzean, “BiscayTIK Fundazioa”)

Haren ordezkari Alaitz Etxeandia Arteaga andreak dihardu, adinez nagusia; honen ondorioetarako helbidea: Zugatzarte etorbidea 32, Getxo (Bizkaia); NAN: 30691980K–, BiscayTIK Fundazioko zuzendari nagusia.

**II.** Beste aldetik, Durangoko Udalaren toki-erakundea. (aurrerantzean, “**Toki-erakundea**”).

Haren ordezkari Ima Garrastatxu Urbaneja andreak dihardu –adinez nagusia; NAN: 30.584.576-G, Alkatea den aldetik, alkatearen izendapenaren aktan jasota dagoenez, emandako eskumenen arabera.

Aurrerantzean, eta hitzarmen honetan jasotako eragina izan dezan, “Alderdia” esapideak BiscayTIK Fundazioa edo Toki-erakundea esan nahi du, kasu bakoitzaren arabera, eta “Alderdiak” esapideak esan nahi du BiscayTIK Fundazioa eta Toki- erakundea biak batera.

**ADIERAZTEN DUTE**

**I.** BiscayTIK Fundazioa foru-fundazio publiko bat da, Bizkaiko Foru Aldundiak sortutakoa, eta haren fundazio-helburuen artean jarduerak sustatzea dago, komunikazioaren teknologien bidez herritarrei arreta emateari lotutako teknologiak eta kudeaketa-praktikak bultzatu eta ezagutarazteko, herritarrak Administraziorengana online hurbil

En Durango, a 18 de Septiembre de 2020

LAS PARTES

**I.** De una parte, la FUNDACIÓN BISCAYTIK - BISCAYTIK FUNDAZIOA (en adelante, la “Fundación BiscayTIK”).

Se halla representada por Dª. Alaitz Etxeandia Arteaga, mayor de edad, con domicilio a estos efectos en Getxo (Bizkaia), Avenida Zugazarte nº 32, con DNI número 30.691.980-K quien actúa en su condición de Directora General de la Fundación BiscayTIK.

**II.** De otra parte, de la Entidad Local del Ayuntamiento de Durango (en adelante, “**Entidad Local**”).

Se halla representada por Ima Garrastatxu Urbaneja, mayor de edad, con DNI número 30.584.576-G, en su condición de Alcaldesa, según consta en el acta de nombramiento del alcalde, en ejercicio de las competencias atribuidas.

En adelante, y a los efectos del presente convenio, “Parte” significa la Fundación BiscayTIK o Entidad Local según el sentido de la expresión en cada caso, y “Partes” significa la Fundación BiscayTIK y Entidad Local conjuntamente.

**EXPONEN**

**I.** Fundación BiscayTIK es una fundación pública foral creada por la Diputación Foral de Bizkaia - Bizkaiko Foru Aldundia entre cuyos fines fundacionales está la promoción de actividades para el impulso del conocimiento en las tecnologías y prácticas de gestión relacionadas con la atención a la ciudadanía a través de las tecnologías de la comunicación, a fin de

daitezen sustatze aldera.

potenciar el acercamiento on-line de la ciudadanía a la Administración.

BiscayTIK Fundazioak bere hastapenetatik garatu dituen proiektu nagusietako bat izan da plataforma elektroniko bat sortzea, toki-erakunde bakoitza kudeatzeko balioko duena. Plataforma hori toki-administrazioei nahiz Bizkaiko mankomunitateei eskaintzen die, bai eta toki-erakundeen zati diren subjektuei ere, azpiegitura informatiko horren bidez zerbitzu jakin batzuk eman dakizkien eta, horrela, nola barne-funtzionamendua hala herritarrekin egiten diren gestioak bide elektronikoz egin ahal izateko (aurrerantzean "BiscayTIK Proiektua").

Desde sus comienzos, uno de los principales proyectos desarrollados por la Fundación BiscayTIK ha sido la creación de una plataforma electrónica que sirva para gestionar cada Entidad Local, ofreciéndosela tanto a las Administraciones Locales como a las Mancomunidades de Bizkaia, así como a los diferentes sujetos que forman parte de las Entidades Locales para que, a través de esta infraestructura informática, les sean prestados determinados servicios de tal forma que tanto su funcionamiento interno como sus gestiones con la ciudadanía puedan ser realizadas de forma electrónica (en adelante, el "Proyecto BiscayTIK").

**II.** Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, eta Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen arabera, Bizkaiko toki-erakunde guztiei eskumen eta betebehartzat ezarri zaie beren arteko harremanak eta beren organoekiko nahiz lotutako edo mendeko erakunde publikoekiko harremanak bide elektronikoz gauzatzea, haietako bakoitzak hartutako sistema eta konponbideen elkarreragingarritasuna eta segurtasuna bermatzen dituzten bitarteko elektroniko batzuk baliatuz eta datu pertsonalen babesa bermatuta, bai eta herritarrek administrazio publikoekin harremanak bide elektronikoz ezartzeko duten eskubidea bideratu eta betetzea ere.

**II.** Que, de acuerdo con lo establecido en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, así como en la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, para todas las Entidades Locales de Bizkaia se ha establecido como competencia y obligación relacionarse electrónicamente entre sí y con sus órganos, organismos públicos y entidades vinculados o dependientes a través de medios electrónicos que aseguren la interoperabilidad y seguridad de los sistemas y soluciones adoptadas por cada una de ellas, garantizando la protección de datos de carácter personal, así como sustanciar y cumplir el derecho de la ciudadanía de relacionarse electrónicamente con las Administraciones Públicas.

**III.** Hitzarmena izenpetzen duten bi alderdien betebeharretako bat izanik informazioaren teknologiak aplikatzea

**III.** Que teniendo ambas Partes firmantes entre sus obligaciones la aplicación de las tecnologías de la Información para el

onlineko zerbitzu elektronikoak sustatu, garatu eta ezartzeko, herritarren zein enpresen onurarako, beharrezkoa da arin eta eraginkortasunez aurrera egitea administrazio elektronikoaren garapenean, aurreko lege-betebeharrak benetan betetze aldera.

impulso, desarrollo e implantación de servicios electrónicos en línea, en beneficio de la ciudadanía y las empresas, es preciso avanzar con rapidez y eficacia en el desarrollo de la Administración electrónica para dar efectivo cumplimiento a las anteriores obligaciones legales.

**IV.** Helburu komun horiek betetzeko, BiscayTIK Proiektua osatzen duten eta BiscayTIK Fundazioak emango dituen zerbitzuak honako hauek dira: (i) **plataforma elektroniko bat**, hainbat zerbitzuk osatutakoa, toki-erakundeen informatika-beharrizanak estaltzeko bokazioa duena eta (ii) BiscayTIK Proiektuaren **osagarri** diren **zerbitzu batzuk** (aurrerantzean, **"Zerbitzu Osagarriak").** Bizkaiko toki-erakunde batzuen eta besteen beharrizanak desberdinak direla kontuan izanda, BiscayTIK Proiektuarekin bat egitea onartzen duen toki-erakunde bakoitza bere beharrizanen arabera egoki iruditzen zaizkion zerbitzuei atxiki ahalko zaie, BiscayTIK Proiektuko zerbitzuen artean.

**IV.** Para cubrir dichos objetivos comunes, el Proyecto BiscayTIK se compone de los siguientes servicios a ser prestados por la Fundación BiscayTIK: (i) **una plataforma electrónica** compuesta por diferentes servicios que tiene como vocación cubrir de manera integral las necesidades informáticas de las Entidades Locales y (ii) una serie de **servicios complementarios** al Proyecto BiscayTIK (en adelante, los **"Servicios Complementarios").** Teniendo en cuenta que las necesidades de las Entidad Locales de Bizkaia son distintas, cada uno de los Entes Locales que apruebe suscribirse al Proyecto BiscayTIK tendrá la facultad de adherirse únicamente a aquellos servicios del Proyecto BiscayTIK que estime oportuno de acuerdo con sus necesidades.

**V.** BiscayTIK Sistema Informatikoa atzitzen eta erabiltzen utziko zaie hala eskatzen duten BiscayTIK Proiektuari atxikitako toki-erakundeei; kasu horretan, BiscayTIK Fundazioak beharrezko zerbitzuak emango ditu toki-erakundeek erabiltzen dituzten uneko zerbitzu informatikoetatik BiscayTIK Sistema Informatikorako migrazioa egiteko, halakoa egin behar denean, dago(z)kion akordio berezi(et)an ezarritako moduaren eta baldintzen arabera.

**V.** Se permitirá el acceso y la utilización del Sistema Informático BiscayTIK a las Entidades Locales que, adheridos al Proyecto BiscayTIK, así lo soliciten; en tal caso, la Fundación BiscayTIK proveerá de los servicios necesarios para, en su caso, efectuar la migración desde los sistemas informáticos actuales utilizados por los Entidad Locales al Sistema Informático BiscayTIK de acuerdo con los términos y las condiciones que se establezcan en el/los correspondiente/s acuerdo/s específico/s.

**VI.** Hitzarmen marko honen izenpetzeak indarreko legedian ezarritako baldintzak eta formalitateak bete ditu, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoak, zehazki, eta Alderdien artean sortzen duen akordioak

**VI.** La firma del presente Convenio Marco ha cumplido los requisitos y formalidades establecidas en la legislación vigente, y en concreto en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, suponiendo un acuerdo entre las Partes que conlleva compromisos

konpromiso juridiko jakin eta galdagarri batzuk dakartza berekin, baina ez dio inola ere eskualdatzen edo lagatzen Toki-erakundearen eskumenik BiscayTIK Fundazioari, hitzartutako gaien inguruko inolako alderdiri dagokionez. Hitzarmen marko hau izenpetzeak, hitzarmen bereziekin batera, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetzen du, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera errazten du, onura publikoko jarduerak egiten laguntzen du, eta aurrekontu-egonkortasun eta finantza-jasangarritasunari buruzko legedia betetzen du.

jurídicos concretos y exigibles, pero que en ningún caso traslada ni cede la competencia de la Entidad Local a la Fundación BiscayTIK en ningún aspecto relativo a la misma sobre las materias conveniadas. La suscripción de este Convenio Marco, conjuntamente con los Convenios Específicos, mejora la eficiencia de la gestión pública, facilita la utilización conjunta de medios y servicios públicos, contribuye a la realización de actividades de utilidad pública y cumple con la legislación de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.

**VII.** Durangoko toki-erakundeak BiscayTIK Proiektuari atxikitzea bideratu nahi duenez gero, BiscayTIK Fundazioak on irizten diola, hori guztia hitzarmen marko honetan xedatutako moduan eta baldintzen arabera, bai eta hitzarmen marko hau garatzeko Alderdiek izenpetuko dituzten hurrengo akordio eta hitzarmen berezietan xedatutakoen arabera, administrazio elektronikorako sarbiderik onena lortzeko helburuz.

**VII.** Dado que la Entidad Local de Durango desea articular su adhesión al Proyecto BiscayTIK, lo cual es celebrado por la Fundación BiscayTIK, todo ello en los términos y condiciones previstos en el presente convenio marco, así como en los sucesivos acuerdos y convenios específicos de desarrollo de este convenio marco que se suscriban entre las Partes, con el fin de lograr el mejor acceso a la Administración Electrónica.

Aurrekoan oinarrituta, Alderdiek, horretarako legezko gaitasuna aitortzen diotela elkarri, BiscayTIK Proiektuari atxikitzeko hitzarmen marko hau izenpetzen dute (aurrerantzean, “Hitzarmen Markoa”), ondorengo klausulak aintzat hartuz gauzatzekoa:

Sobre la base de lo anterior, las Partes, reconociéndose mutuamente la capacidad legal necesaria para ello, firman el presente convenio marco de adhesión al Proyecto BiscayTIK (en adelante, el “Convenio Marco”), que se regirá con arreglo a las siguientes

## KLAUSULAK

## CLÁUSULAS

### 1.- HITZARMEN MARKOAREN XEDEA

Hitzarmen Marko honen xedea da oinarri arau-emaileak ezartzea Toki-erakundea BiscayTIK Proiektuari bigarren klausulan definituriko zerbitzu posible guztietan atxikitzeko, baldin eta atxikipen egokiak formalizatzen badira, zerbitzuak dagozkien hitzarmen berezietan xehatuta. Horrez gain, Hitzarmen Marko honek Alderdiek konpromisoz beren gain hartzen dituzten betebeharrak arautzen ditu, alegia, akordio hau ituntzeak zuzenean eragiten dituen betebeharrak.

### 1.- OBJETO DEL CONVENIO MARCO

El presente Convenio Marco tiene por objeto establecer las bases reguladoras de la adhesión de la Entidad Local al Proyecto BiscayTIK en todos los posibles servicios definidos en la Cláusula Segunda, siempre y cuando se formalicen las adhesiones oportunas detallándose los servicios en los correspondientes Convenios Específicos. Además, este Convenio Marco regula las obligaciones a que se comprometen las Partes derivadas directamente del pacto del presente

acuerdo.

Hitzarmen Marko hau zehaztuko da, bigarren klausulan deskribaturiko banakako zerbitzuei dagokienez, hitzarmen edo akordio berezi batzuen bidez. Halakoak BiscayTIK Fundazioaren eta Toki-erakundearen artean izenpetuko dira, eta han era xehatu eta zehatzean arautuko dira bai baldintzak, bai Alderdien eskubide eta betebeharrak, Hitzarmen Marko honen xede diren zerbitzuen inguruan.

La concreción del presente Convenio Marco en lo relativo a sus diferentes servicios individuales descritos en la Cláusula Segunda, se realizará mediante Convenios o acuerdos específicos que se suscribirán entre la Fundación BiscayTIK y la Entidad Local, en los que se regularán de forma detallada y concreta los términos, las condiciones, los derechos y las obligaciones de las Partes en lo referente a los distintos servicios objeto del presente Convenio Marco.

Hitzarmen Marko honen edukia hedatu eta ezartzeak, haren garapenekin batera, bide emango du itundutako kudeaketa arin eta kontrolatu bat izateko, Toki-erakundea gaituko duena zerbitzu publiko guztiak edo haietako batzuk herritarrei **bide elektronikoz** emateko, eta azken horrek halako gaiak arautzen dituen legediaren alderdi guztiak bete beharko ditu, hain zuzen. BiscayTIK Proiektua eta haren zerbitzu bakoitzak indarreko araudia legez betetzen laguntzen du, horrekin hitzartutako inongo alderdiren eta arloren eskualdaketarik edo lagapenik gertatu gabe Toki-erakundearengandik BiscayTIK Fundazioarengana, ez eta korporazioaren erantzukizuna baztertu gabe legearen, teknikaren eta antolaketaren aldetik, BiscayTIK Proiektuak ematen ez dituenetan eta Alderdiak lotesten dituzten akordioetan jasota ez daudenetan.

El despliegue e implantación del contenido del presente Convenio Marco, en conjunción con sus desarrollos, permitirá una gestión paccionada ágil y controlada que habilitará a la Entidad Local a prestar en todo o en parte sus servicios públicos de **formaelectrónica** a la ciudadanía, debiendo esta última cumplir en todos sus aspectos la legislación que regula dichas materias. El Proyecto BiscayTIK, y cada uno de sus servicios, ayuda al cumplimiento legal de la normativa vigente, sin que ello suponga ni una traslación ni cesión de la competencia de la Entidad Local a la Fundación BiscayTIK en ningún aspecto ni en ninguna materia conveniada, ni una exclusión de la responsabilidad de la Corporación en los aspectos legales, técnicos u organizativos que no sean prestados por el Proyecto BiscayTIK ni contemplados en los acuerdos que vinculan a las partes.

## 2.- BISCAYTIK PROIEKTUA

## 2.- PROYECTO BISCAYTIK

BiscayTIK Proiektua diziplina askoko proposamen bat da, eskaintzen dituen zerbitzuei lotutako arlo guztiak estaltzen saiatzen dena, plataforma jakin batean euskarritzen direnak lehenaren mendeko ekintza edo zerbitzu osagarri batzuen bidez ezagutza osatzen dutenetatik bereizita. Hurren, bi zerbitzu-motak deskribatzen dira (plataforma elektronikokoak eta osagarriak); hitzarmen bereziak zerbitzu batzuen eta besteen atalak biltzen dituzten dokumentuak dira.

El Proyecto BiscayTIK es una propuesta multidisciplinar que trata de cubrir todos los aspectos relacionados con los servicios que ofrece, distinguiendo entre aquellos que son soportados en una plataforma concreta de aquellos que complementan el conocimiento mediante acciones o servicios adicionales dependientes del primero. A continuación se describen los dos tipos de servicios (de plataforma electrónica y los complementarios) siendo los Convenios Específicos los documentos que aglutinan los diferentes apartados de ambos servicios.

**2.1 Plataforma elektronikoko zerbitzuak**

BiscayTIKen plataforma elektronikoa hurrengo zerbitzuez osaturik dago, eta haien baldintza bereziak nahiz bakoitza abian jartzea haiek garatzeko hitzarmen edo akordio berezi batean edo batzuetan ezarrita egongo dira:

1.- Egoitza elektronikoa.

Toki-erakundearen egoitza elektronikoa diseinatu eta mantendu egingo da, honela definituta: herritarrentzat telekomunikazio-sareen bidez eskuragarri dagoen helbide elektroniko bat. Aipatutako erakundearen titulartasunekoa izango da, eta titular horrek bere gain hartuko du erantzukizuna haren bidez irits daitezkeen informazioaren eta zerbitzuen osotasunari, egiazkotasunari eta eguneratzeari dagokienez.

Sortutako egoitza elektronikoek behar diren guztietan komunikazio seguruak ezartzeko sistemak izango dituzte. Egoitza elektronikoek, beren burua identifikatzeko eta haiekin komunikazio segurua egon dadin bermatzeko, webguneak autentifikatzeko ziurtagiri aitortu edo kualifikatuak erabiliko ditu, edo bitarteko baliokideren bat. Horrez gain, egoitzek herritarrekiko interakziorako sistemak eskainiko dituzte, identifikazio-sistemak gaituta eta izenpetzeko sistemei buruzko informazioa emanda izapide bakoitzean.

Plataforma honen barruan Jakinarazpen Elektronikoaren Modulua sartzen da; modulu horrek baditu mekanismoak BiscayTIK Proiektuko gainerako moduluekin integratzeko, eta haren funtzionalitateak honako hauek dira:

Udalerrian borondatez izapide elektronikoak egiten dituzten interesdunek alta eman dezakete eta Jakinarazpen Elektronikoko Zerbitzuan harpide daitezke udal egoitza elektronikoan. Administrazioarekin izapideak legez edo erregelamenduz bide elektronikoz egitera behartuta dauden interesdunei jakinarazpenak bide elektronikoz egiten zaizkie, aurretiazko

**2.1 Servicios de la plataforma electrónica**

La plataforma electrónica de BiscayTIK se compone de los siguientes servicios, cuyos concretos términos y condiciones así como la puesta en marcha de cada uno de ellos estarán establecidos en uno o varios convenio/s o acuerdo/s específico/s de desarrollo:

1.- Sede Electrónica

Se diseñará, y mantendrá la sede electrónica de la Entidad Local, definida como aquella dirección electrónica, disponible para la ciudadanía a través de redes de telecomunicaciones, cuya titularidad corresponde a dicha Entidad, asumiendo ese titular la responsabilidad respecto a la integridad, veracidad y actualización de la información y los servicios a los que pueda accederse a través de la misma.

Las sedes electrónicas creadas dispondrán de sistemas que permitan el establecimiento de comunicaciones seguras siempre que sean necesarias. Las sedes electrónicas utilizarán, para identificarse y garantizar una comunicación segura con las mismas, certificados reconocidos o cualificados de autenticación de sitio web o medio equivalente. Además las Sedes facilitarán los sistemas de interacción con la ciudadanía habilitando los diferentes sistemas de identificación e informando sobre los sistemas de firma en cada trámite.

Esta plataforma incluye El Módulo de Notificación Electrónica que cuenta con mecanismos que le permiten integrarse con el resto de Módulos del Proyecto BiscayTIK, cuyas funcionalidades son las siguientes:

Las personas interesadas que voluntariamente realicen trámites electrónicos en el municipio pueden darse de alta y suscribirse al servicio de Notificaciones Electrónicas en la Sede Electrónica Municipal. Las personas interesadas que, legal o reglamentariamente, se encuentran obligadas a tramitar electrónicamente con la Administración son notificadas electrónicamente sin

eskaerarik gabe. Aukerako abisu-sistema gisa, edozein interesdunek edozein unetan bitarteko elektroniko bat adierazi ahalko du Toki-erakundeak egindako jakinarazpenen abisuak jasotzeko komunikabidetzat.

requerimiento previo alguno. Como sistema potestativo de aviso, cualquier persona interesada y en cualquier momento podrá indicar un medio electrónico como medio de comunicación para recibir los avisos de las Notificaciones que emita la Entidad Local.

Izapideak bide elektronikoz egitera behartuta ez dauden interesdunek nahi duten harpidetza-maila aukera dezakete, “Erabatekoa” (Toki-erakundeak argitaratzen dituen prozedura guztietan), “Arloak” (arlo jakin baten prozedura guztietan), edo prozedura jakin batean.

Las personas interesadas, que no se encuentren obligadas a tramitar electrónicamente, pueden elegir el nivel de suscripción que deseen, seleccionando entre una suscripción “Total” (a todos los procedimiento que publique la Entidad Local), por Áreas (a todos los procedimientos de una determinada Área) o por procedimiento concreto.

Udal Erregistro Elektronikoaren Modulutik hainbat motatako jakinarazpen telematikoak egin dakizkieke (ebazpenak, zuzentzeak, etab.) interesdun jakin batzuei, haiei lotutako espedientearen barruan.

Desde el Módulo de Registro Electrónico Municipal se pueden emitir Notificaciones Telemáticas de diferentes tipologías (Resoluciones, subsanaciones, etc.) a personas interesadas concretas dentro de su expediente asociado

Interesduna jakinarazpenari lotutako prozeduran harpidetu bada, jakinarazpena jasotzeko abisu bat helaraziko zaio.

En el caso de que la persona interesada se haya suscrito al procedimiento asociado a la Notificación, se le remitirá un aviso de recepción de Notificación.

Bitarteko elektronikoz eginiko jakinarazpenek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legean –edo hura ordezten duen arauan– ezarritako guztiak jasotzen dituzte. Besteak beste, jasota uzten ditu jakinarazpena eskuragarri jarri izana, hura hartu edo atzitu izana, egunak eta orduak, jakinarazpenaren eduki osoa, igorlearen nortasuna eta hartzailearen nortasuna.

La práctica de las notificaciones efectuadas por medios electrónicos contempla todos los aspectos establecidos en la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, o en la norma que le sustituya. Entre otros aspectos, deja constancia de la puesta a disposición de la notificación, de su recepción o acceso, de las fechas y horas, del contenido íntegro de la notificación, de la identidad del remitente y de la identidad del destinatario de la misma.

2.-Web-ataria

2.-Portal Web

Toki-erakundearen eta hura harremanetan dagoen hirugarrenen arteko komunikabide-kanala da, eta beharrezko mekanismoak ezartzen ditu Toki-erakundearen erabiltzaileak diren pertsona fisiko eta juridikoek izapideen web-atarirako sarbidea izan dezaten. Atariaren bidez, udalerriaren

Es el canal de comunicación dinámico y continuo entre la Entidad Local y los terceros con los que se relaciona y establece los mecanismos necesarios para permitir el acceso de las personas físicas y jurídicas usuarias de la Entidad Local al Portal Web de Tramitación. A través del portal se

informazio interesgarria jartzen da eskuragarri: udalerriko argazkiak, jaiak, kulturaren eta kirolaren arloko gaiak, turismo-arloko informazioa, hala nola jatetxeak, kale-izendegiak, etab.

accede a la información de interés del municipio, como por ejemplo las fotos del municipio, fiestas, temas culturales y deportivos, información turística como restaurantes, callejeros, etc.

3.- Herritarren Izapide Plataforma

3.- Plataforma de Tramitación Ciudadana

Izapideak bide elektronikoz egiten dira, legezko betebehar guztiak betez, eta erakunde bakoitzak kanal elektronikoan zer izapide jartzen dituen eskuragarri aukera dezake.

Los trámites se realizan de manera electrónica cumpliendo con todas las obligaciones legales y cada entidad puede elegir qué trámites pone a disposición en el canal electrónico.

Sistemak, gainera, honako hau ahalbidetzen du: izapideen egoera ikustea, Toki-erakundeak egindako agiri baten baliozkotasun elektronikoa egiaztatzea, izapide-liburu pertsonalean sartzea, hobespenak dituen profil bat aktibatzea, jakinarazpen elektronikoak kudeatzea, lizitazio elektronikoak kudeatzea, etab.

El sistema permite, además, comprobar el estado de los trámites, verificar la validez electrónica de un documento emitido por la Entidad Local, acceder al libro de certificados personal, activar un perfil con preferencias, gestionar las notificaciones electrónicas, gestionar las licitaciones electrónicas, etc.

Plataforma honen barruan Izapideen Eskuzko Kudeaketaren Modulua sartzen da; modulu hori web-aplikazio bat da, erakunde bakoitzak eskaintzen dituen izapideak kudeatzeko autonomia izateko balio duena. Aplikazio horrek, web-interfaze bakun baten bidez, izapideen datuak eguneratzea (izenburua, zer den, non izapidetzen den, etab.), dauden izapideak argitaratzea eta desargitaratzea nahiz izapide berriak sortzeko eskaerak egitea ahalbidetzen du.

Esta plataforma incluye un Módulo de Gestión Manual de Tramites, que se trata de un aplicativo web para que cada entidad tenga autonomía para gestionar los trámites que ofrece. Este aplicativo mediante una sencilla interfaz web permite actualizar los datos de los trámites (título, que es, donde se tramita, etc.), publicar y despublicar trámites existentes, así como realizar peticiones de creación de nuevos trámites.

Behin aplikazioan izapideak eguneratuta, egoitza elektronikoan ageri den informazioa eguneratu ahalko da, eta automatikoki sortuko da izapideen eskuliburu bat (PDF) webean zuzenean eguneratuko dena; eskuliburu horren estilo-parametroak ezarri ahalko dira.

Una vez actualizados los trámites en el aplicativo se podrá actualizar la información que aparece en la sede electrónica, y automáticamente se generará un manual de trámites (PDF) que se actualizará directamente en la web, siendo este manual parametrizable en cuanto a estilo.

4.-Sarrera eta Irteeren Erregistroaren Modulua

4.-Módulo Registro de Entrada y Salida

Erregistro Nagusi Orokorra jasotzen du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16. artikuluan ezarritako lege-zehaztapenen arabera, eta zehazki, Erregistro-erakundeen arteko idazpen-trukerako datu-ereduaren elkarreragingarritasun-arau teknikoa onartzeko 2011ko uztailaren 19ko Funtzio Publikoko Estatu

Recoge el Registro Electrónico General según las especificaciones legales del artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y, específicamente las indicadas conforme a las especificaciones de la Resolución de 19 de julio de 2011, de la Secretaría de Estado para la Función Pública, por la que se aprueba la

Idazkaritzaren Ebazpeneko zehaztapenen arabera edo hura ordezten edo egokitzen duen araukoen arabera, eta sarrerako zein irteerako idazpenak erregistratzea eta mugimendu horiek kontsultatu eta inprimatzea ahalbidetzen du.

Norma Técnica de Interoperabilidad de Modelo de Datos para el Intercambio de asientos entre las entidades registrales, o norma que la sustituya o adapte, permitiendo el registro de los asientos de entrada y salida así como la consulta e impresión de dichos movimientos.

Toki-erakundearen izapide eta prozeduren inguruko eskabideak, idazkiak eta komunikazioak igortzea eta hartzea ahalbidetzen du.

Permite el envío y la recepción de solicitudes, escritos y comunicaciones relativas a los trámites y procedimientos de la Entidad Local.

Sarrera-erregistroak sortzen ditu edozein bulego-erregistroren aurrean eskabide, idazki edo komunikazio bat aurkezten den bakoitzean.

Genera registros de entrada cada vez que se presenta una solicitud, escrito o comunicación ante cualquier oficina de registro.

Irteera-erregistroak sortzen ditu administrazioak berak idazki edo jakinarazpen bat igortzen duen bakoitzean.

Genera registros de salida cada vez que la propia Administración expida un escrito o notificación.

Aldaketei buruzko historia-erregistro bat eramaten du, data, ordua eta aldaketa egin duen erabiltzailea jasota, bai eta aldatutako datuak ere.

Mantiene un registro de histórico sobre modificaciones en los registros que indiquen la fecha, hora y persona usuaria que realizó la modificación y los datos modificados.

Sarrera eta irteerako idazpenen idatzoharra egiten du indarreko legediaren arabera, hartzaile izendatutako sail edo unitateek idatzoharrak onartzeko eta ez onartzeko prozesua barne.

Anota los correspondientes asientos de entrada y salida de acuerdo con la legislación vigente, incluyendo proceso de aceptación y rechazo de anotaciones por parte de los Departamentos o Unidades asignadas como destinatarios.

BiscayTIK Proiektuaren barruko egoitza elektronikoaren, espediente-kudeaketaren, faktura elektronikoaren sarrera-puntu orokorraren, eta lizitazio elektronikoaren moduluekin integratuta dago, besteak beste.

Se encuentra integrado con los módulos del Proyecto BiscayTIK de sede electrónica, gestión de expedientes, punto general de entrada de factura electrónica, licitación electrónica entre otros.

5.-Espedienteen Modulua

5.-Módulo Expedientes

Sisteman ezarritako administrazio-prozedurak administratzea, konfiguratzea eta parametrizatzea ahalbidetzen du; hala, bide ematen du administrazio-prozedura bakoitzerako informazio-jarioa nahiz formatu elektronikoko espediente guztien kudeaketa osoa zehazteko.

Permite la administración, configuración y parametrización de los diferentes procedimientos administrativos implementados en el sistema permitiendo definir el flujo de información para cada uno de los procedimientos administrativos así como la gestión íntegra de todos los expedientes en formato electrónico.

6.-Biztanle Erroldaren Modulua

Biztanle Erroldaren Moduluak biztanleria errolda-araudiari egokitutako eran kudeatzea ahalbidetzen du, baita udalerria kudeatzea ere, errolda biztanleriaren erregistro iraunkortzat hartuta. Sistemak bide ematen du, halaber, lurraldea banatzeko, biztanleria-unitateen araberako zatiketa geografikoa eta atalen araberako zatikatze geografikoa eginez. Bestalde, haren bidez datu-trukea egin daiteke EINrekin, erroldako eta zentsuko datuen fitxategien bidez, eta EINera bidaltzeko fitxategietan jasotzen diren eragiketak ezar daitezke. Era berean, erroreak kudeatzea eta kontraste- eta alegazio-fitxategiak sortzea ahalbidetzen du.

6.-Módulo Padrón de Habitantes

El Módulo Padrón de Habitantes permite la realización de una gestión de la población adaptada a la normativa padronal y una gestión del municipio, concibiendo el padrón como un registro permanente de población. El sistema permite, a su vez, la distribución del territorio realizando una división geográfica por unidades poblacionales y división geográfica por secciones. Por otro lado, permite el intercambio de datos con el INE vía ficheros de datos del padrón y del censo, pudiéndose establecer los tipos de operaciones que se recogen en los ficheros envío al INE. Asimismo, permite la gestión de los errores y la generación de ficheros de contraste y alegaciones.

7.-Giza Baliabide eta Nominen Modulua

Aplikazio honek udal-arloko giza baliabideen eta nominen kudeaketa osoa jasotzen du. Giza baliabideen atalean, pertsonalaren kudeaketa, lanpostu-zerrendaren definizioa, lan-eskaintza publikoaren sorrera eta prestakuntza barne hartzen ditu, beste funtzionalitate batzuen artean. Nominen atalean, moduluaren bidez sektore publikorako nomina-zikloaren kudeaketa osoa egin daiteke. Toki-erakundeko pertsonal-klase guztien ordainsarien kalkulua ere egin daiteke. Halaber, kotizazioak egitea ahalbidetzen du, Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean, MUFACEn eta eskubide pasiboetan, etab. Nomina-motak defini daitezke, malgutasuna ematen du parametroak ezartzeko kontzeptu eta ordainagirietarako, txostenen irteerarako, atzeraeragin automatikorako, etab.

7.-Módulo de Recursos Humanos y nóminas

Aplicación que contempla la gestión completa de los RRHH y las Nóminas en el ámbito municipal. Dentro del apartado de RRHH contempla la gestión del personal, la definición de la RPT, la creación de OEP y la formación, entre otras funcionalidades. En el apartado de Nóminas, el módulo permite la gestión completa del ciclo de nómina para el Sector Público. Contempla el cálculo de las retribuciones de todas las clases de personal de la Entidad Local. Igualmente, permite realizar la cotización al Régimen General de la Seguridad Social, MUFACE y Derechos Pasivos, etc. Permite definir diferentes tipos de nómina, ofrece flexibilidad en la parametrización de conceptos y recibos, salidas de informes, retroactividad automática, etc.

8.-Kontabilitate Modulua

BiscayTIK Proiektuko Kontabilitate Modulua foru-araudiari egokituta dago, eta aplikazio bakarrean aurrekontu-kontabilitatea zein aurrekontuz kanpoko kontabilitatea, finantza-kontabilitatea, aurrekontu-sorrera, eta ekitaldien irekiera eta itxiera biltzen ditu; horrekin batera, BiscayTIK Fundazioak eskainitako Faktura Elektronikoaren Sarrera-puntu Orokorraren Moduluarekin integratuta dago.

8.-Módulo de Contabilidad

El módulo de Contabilidad del Proyecto BiscayTIK se adapta a la normativa Foral e integra en una sola aplicación, la contabilidad presupuestaria y la no presupuestaria, la contabilidad financiera, la creación de presupuestos, la apertura y cierre de ejercicios, junto con la integración módulo de Punto General del Entrada de Factura Electrónica, ofrecido por la Fundación BiscayTIK.

9.-Zerga Kudeaketa eta Bilketaren Modulua

Zerga Kudeaketa eta Bilketaren Moduluak ahalbidetzen du toki-erakundeek zerga-egitateen inguruko oinarrizko datuak kudea eta egiazta ditzaten, gero zerga, tasa eta prezio publikoak likidatu ahal izateko.

Zerga Kudeaketa eta Bilketako Sistemak bai zergen kudeaketa eta borondatezko bilketa, bai nahitaezko bilketa.

Aplikazioak parametroak ezartzeko aukera ematen du, urtero udal-ordenantza fiskaletan onartutako tasa eta prezio publikoetarako. Likidaziotzat edo aldizkako erroldatzat eman dakieke alta, edo bi prezioei aldi berean.

9.-Módulo Gestión Tributaria y Recaudación

El Módulo Gestión Tributaria y Recaudación permite que las Entidades Locales puedan gestionar y verificar los datos básicos sobre los hechos imponibles necesarios para la posterior liquidación de Impuestos, Tasas y Precios Públicos.

El Sistema de Gestión Tributaria y Recaudación gestiona tanto la Gestión Tributaria y recaudación voluntaria como la Recaudación Ejecutiva.

La aplicación es parametrizable para las distintas tasas y precios públicos aprobados cada año en las Ordenanzas Municipales Fiscales. Pueden ser dados de alta como liquidaciones o padrones periódicos o ambos precios a la vez.

10.-Faktura Elektronikoaren Sarrera-puntu Orokorraren Modulua

Faktura Elektronikoaren Sarrera-puntu Orokorrak ahalbidetzen du hornitzaileek beren fakturak bide elektronikoz igor diezazkieten toki-erakundeei.

Faktura Elektronikoaren Sarrera-puntu Orokorraren bidez aurkeztutako faktura elektroniko guztiek sarrera automatiko bat sortzen dute faktura elektronikoaren sarrera-puntu orokor horren kudeatzailea den administrazio publikoaren erregistro elektroniko batean.

Faktura-aurkezpen orok hartu izanaren agiri elektroniko bat sortzen du; agiri horrek aurkezpenaren data eta ordua ziurtatzen ditu, eta erregistro-zenbakia nahiz erregistroaren kopia autentifikatua jasotzen ditu.

Faktura Elektronikoaren Sarrera-puntu Orokorra Kontabilitate Moduluarekin lotuta dago, eta, horri esker, fakturak modu arinean kontabiliza daitezke.

10.-Módulo de Punto General del Entrada de Factura Electrónica

El Punto General de Entrada de Factura Electrónica permite que los proveedores remitan de manera electrónica sus facturas a las Entidades Locales.

Todas las facturas electrónicas presentadas a través del Punto General de Entrada de Facturas Electrónicas producen una entrada automática en un registro electrónico de la Administración Pública gestora de dicho Punto General de Entrada de Facturas Electrónicas.

Toda presentación de factura, genera un acuse de recibo electrónico con acreditación de la fecha y hora de presentación, número de registro y copia autenticada del registro.

El Punto General de Entrada de Factura Electrónica está enlazado con el módulo de Contabilidad, lo que permite contabilizar las facturas de forma ágil.

11.-Lizitazio Elektronikoaren Modulua

11.-Modulo de Licitación Electrónica

Lizitazio Moduluak ahalbidetzen du lizitatzaileek eskaintzak bide elektronikoz aurkeztea, enkante elektronikoak egitea, eta akats-zuzenketak, argipenak, parte hartzeko eskaerak zein eskaintza negoziatuak kudeatzea.

El Módulo de Licitación permite la presentación electrónica de ofertas por los licitadores, la realización de subastas electrónicas, la gestión de subsanaciones, aclaraciones, solicitudes de participación, así como de ofertas negociadas.

Moduluak badauka arrazionalizazio-sistema bat, eta erabat integraturik dago BiscayTIK Proiektuko Kontratazio Espedienteak Izapidetzeko Plataformarekin, aurretiaz hitzarmen berezia izenpetuta.

El Modulo dispone de un sistema de racionalización, estando plenamente integrado con la Plataforma de Tramitación de Expedientes de Contratación del Proyecto BiscayTIK, previo Convenio de Específico.

Moduluaren funtzionalitateei esker, enpresa lizitatzaileek beren espedienteak kontsulta ditzakete, jakinarazpenak jaso ditzakete, izapidetzen ari diren lizitazioen epe eta izaeraren arabera, eta prozesuan zehar bildutako informazio guztian sarbidea izan dezakete. Eta hori guztia egiten da konfidentzialtasuna erabat bermatzen duen ingurune batean, zifratze-mekanismo aurreratuenen bidez, segurtasun-arloan indarrean den araudia betez.

Las funcionalidades del Módulo permiten que las empresas licitadoras puedan consultar sus expedientes, recibir notificaciones en función de los plazos y la naturaleza de las licitaciones en curso, así como acceder a toda la información recopilada durante el proceso. Todo ello en un entorno con total garantía de confidencialidad mediante los mecanismos de cifrado más avanzados, cumpliendo la normativa vigente en materia de seguridad.

12.-Pakete ofimatikoaren lizentziak lagatzea

12.-Cesión Licencias de paquete Ofimático

BiscayTIK Fundazioak Toki-erakundeari hainbat aplikazio informatikoren lizentzien lagapena eskaintzen dio, halakoek erabiltzeko aukera izan dezaten; horrela zerbitzuaren eta eguneratzeen aldetik irabaziko du, eta eskala-ekonomiaren onurak jasoko, banakako lizentziatzea baino tamaina handiagoko kolektibo batek eskuratutako programa estandarizatuak erabiltzearen ondorioz. BiscayTIK Fundazioak, hitzarmen bereziak formalizatzean, une bakoitzean korporazio bakoitzaren beharrizanei ongien egokitzen zaizkien tresnak eskainiko ditu, bertsioak zein aurrerapen teknologikoak aintzat hartuz.

La Fundación BiscayTIK ofrece a la Entidad Local la cesión de licencias de diferentes aplicaciones informáticas que pueden ser utilizadas por las mismas, ganando en servicio, actualizaciones, así como se beneficia de la economía de escala que se genera al utilizar programas estandarizados adquiridos por un colectivo superior en tamaño a un licenciamiento individualizado. La Fundación BiscayTIK, mediante la formalización de los diferentes Convenios Específicos ofrecerá las herramientas que mejor se pueden adaptar en cada momento a las necesidades de cada Corporación considerando las versiones así como los avances tecnológicos

13.-Gaztebizz

13.-Gaztebizz

BiscayTIK Fundazioak Toki-erakundeari teknologiaren aldetik laguntzeko zerbitzu bat eskaintzen dio, Interneten, kulturaren eta gazteen arloetan zehazki, duen presentzia hobetze aldera. Korporazioa izango da azken erabakitzaile eta erantzulea zabalduko diren edukien inguruan,

La Fundación BiscayTIK ofrece un servicio consistente en apoyar tecnológicamente a la Entidad Local con el fin de mejorar su presencia en internet en el ámbito de la cultura y la juventud, siendo la Corporación el decisor final y responsable de los contenidos que se divulguen,

baina, betiere, “Gaztebizz” proiektuaren elementu bereizgarri, identifikagarri eta komunak errespetatuta, halako proiektuari atxiki denez gero.

respetando, en todo caso, los elementos diferenciales, identificativos y comunes del proyecto “Gaztebizz”, al que se adhiere.

“Gaztebizz” domeinuak eskaintzen dituen zerbitzuen artean (www.gaztebizz.eus), berri-zerbitzu bat dago, eta hura hurren eskaintzen diren moduetako batean elikatuko da:

Dentro de los servicios que ofrece el dominio “Gaztebizz” (www.gaztebizz.eus) se encuentra un servicio de noticias, el cual será alimentado de alguna de las tres formas que se ofrece a continuación:

-  Automatikoki, berriak aurrez aukeratutako kokaleku batetik jasota.
-  Eskuz, korporazioak esleitutako pertsona batek erabakitako informazioa sartuta. Fundazioaren baliozkotzailearen nortasuna jakinarazi beharko zaio.
-  Mistoa, aurreko bi zerbitzuak batera erabilita.

-  Automáticamente, recibiendo noticias de una ubicación preseleccionada.
-  Manualmente, incorporando la información que determine una persona designada por la Corporación. La persona del validador deberá ser comunicado a la Fundación.
-  Mixta, utilizando una miscelánea de los dos servicios anteriores.

14. Turismo eta Merkataritzako Plataforma

14. Plataforma de Turismo y Comercio

Webgune hau udalerriko turismoa eta merkataritza publizitatzera bideratuta dago; bertan, jarduerak, informazio erabilgarriak, ostatuak, jatetxeak, tabernak, mapa interaktiboak, ibilbideak eta abar ezagutarazten dira.

Web orientado a publicitar el turismo y comercio de la localidad, donde se reflejan actividades, información útil, alojamientos, restaurantes, bares, mapas interactivos, rutas...

Helburu hori lortzeko, BiscayTIK Fundazioak Toki-erakundeari Turismoa eta Merkataritza deritzon plataforma teknologiko bat erabiltzea eskaintzen dio. Plataforma horrek bide ematen du turismoaren eta merkataritzaren ardatzen inguruko ekimenak gauzatzeko.

Para el logro de este objetivo, la Fundación BiscayTIK ofrece a la Entidad Local el uso de una plataforma tecnológica denominada Turismo y Comercio. Esta plataforma permite ejecutar iniciativas en torno a los ejes de Turismo y Comercio.

15.-Gobernu Irekiko Plataforma

15.-Plataforma de Gobierno Abierto

BiscayTIK Fundazioak gobernu irekian oinarritutako udal-kudeaketa sustatzen duen zerbitzu bat eskaintzen du.

La Fundación BiscayTIK ofrece un servicio que fomenta una gestión municipal basada en el gobierno abierto.

Helburu hori lortzeko, BiscayTIK Fundazioak Toki-erakundeari gobernua irekiaren oinarriak dituen

Para el logro de este objetivo, la Fundación BiscayTIK ofrece al Entidad Local el uso de una

plataforma bat erabiltzea eskaintzen dio, Udala Zabaltzen deritzona. Plataforma horrek bide emango du gardentasunaren, parte-hartzearen eta lankidetzaren ardatzen inguruko ekimenak gauzatzeko.

plataforma, bajo los fundamentos del Gobierno Abierto, denominada Udala Zabaltzen. Esta plataforma permitirá ejecutar iniciativas en torno a los ejes de transparencia, participación y colaboración.

Halaber, helburu hori lortzeko, Fundazioak aholkularitza eta laguntza eskaintzen du, herritarren ahalduntze eta parte-hartzerako ekimenak, udalerriko politika publikoen kudeaketari loturikoak, abian jartzeko.

Asimismo, para el logro de este objetivo, la Fundación ofrece asesoría y apoyo en la puesta en marcha de iniciativas de empoderamiento y participación ciudadana, relacionadas con la gestión de las políticas públicas del municipio.

16.-Elkarreragingarritasun Zerbitzua

16.-Servicio de Interoperabilidad

Toki-erakundea nodoekin konektatzea eta interakzioa izatea ahalbidetzen du, eta, aldi berean, posible egiten du herritarren datuak bitarteko elektronikoz kontsultatzea bai lurralde bereko beste administrazio publikoetan, bai gainerako administrazio publikoetan.

Permite que la Entidad Local se conecte e interactúe con los correspondientes Nodos, posibilitando, a su vez, la consulta por medios electrónicos de los datos de la ciudadanía que obren en poder de otras Administraciones Públicas del mismo territorio así como a los datos disponibles en el resto de Administraciones Públicas.

Ahalbidetzen du korporazioak informazioaren lagatzaile zein lagapen-hartzaile gisa jokatzea.

Permite que la Corporación actúe en el rol de cedente y cesionario de información.

Horri dagokionez, korporazioak lagatzaile edo lagapen-hartzaile gisa diharduen kasuetan, Fundazioak beteko ditu informazioaren emaile edo hartzaile-lanak, horretarako ezarritako betebeharrekin.

En este sentido y para los supuestos en que la Corporación actúe en el Rol Cedente o Cesionario, la Fundación realizará las tareas propias de emisor o requirente de la información, con las obligaciones que se determinen.

Lagatzaileei edo lagapen-hartzaileek informazioa eskatzea eta/edo igortzea ahalbidetzen du, aplikatzekoak diren elkarreragingarritasun-arau teknikoek ezarritako baldintzak betez, betiere.

Permite solicitar y/o remitir información a los cedentes o cesionarios, cumpliendo en todo caso los requisitos establecidos desde las diferentes Normas Técnicas de Interoperabilidad que sean de aplicación.

17- Udal Larrialdi Plana

17- Plan de Emergencias Municipal

Aplikazio honek Bizkaiko udalen Udal Larrialdi Planak (ULP) prestatu, homologatu eta eguneratzea errazten du. Udalen ULPak prestatuz, lurraldeko arriskuak eta elementu ahulak nahiz bitarteko eta baliabideak identifikatzea ahalbidetzen du, halakoak bitarteko eta baliabideen foru-katalogoan sartzeko, eta

Se trata de un aplicativo que facilita la elaboración, homologación y actualización de los Planes de Emergencia Municipales (PEM) de los municipios de Bizkaia. Permite identificar los riesgos y vulnerables y medios y recursos del territorio a través de la elaboración de los PEM municipales, para la integración de los mismos en

herritarrek eskura duten informazioa hobetzen du, beren udalerrian gertatzen den ezbehar bati aurre egiteko garaian.

el catálogo de medios y recursos foral y Mejora la información de la que disponen la ciudadanía y las ciudadanas a la hora de enfrentarse a una incidencia en su término municipal.

Bestalde, foru-aldundiaren larrialdietarako bitartekoek eskura duten informazioa hobetzen laguntzen du, larrialdiei erantzun azkarra ematea ziurtatzeko.

Por otro lado permite mejorar la información de la que disponen los medios de emergencias forales para asegurar una rápida respuesta a emergencias.

18 -Gizarte Zerbitzuak

18 -Servicios Sociales

Gizarte Zerbitzuen Modulua tresna informatiko bat da, toki-erakundeek gizarte-zerbitzuen arloan kudeaketa hobetu dezaten ahalbidetzen duena; horrez gain, informazioa trukatzea errazten du toki-erakundeen gizarte-zerbitzuen sailaren eta beste hirugarren batzuen –hala nola Bizkaiko Foru Aldundiaren (BFA)– artean.

El módulo de Servicios Sociales es una herramienta informática que permite mejorar la gestión de las Entidades Locales en el área de servicios sociales, además de facilitar el intercambio de información entre el área de servicios sociales de las Entidades Locales y otros terceros como la propia Diputación Foral de Bizkaia (DFB).

Tresna horren bidez, besteak beste, zerbitzu hauek kudea daitezke: agenda; Fitxa sozialaren kudeaketa; ELZ eta GLL kudeatzea; umeentzako eta gizarte-inklusiorako esku-hartze sozialak kudeatzea; mendekotasunaren balorazioak eskatzea; aparkatzeko txartela kudeatzea; eta foru-aldundiak kudeatutako zerbitzuen informazioa kargatzea eta kontsultatzea.

Esta herramienta permite gestionar, entre otros, los siguientes servicios: Agenda, Gestión de la ficha social, Gestión del SAD y AES, Gestionar las intervenciones sociales de Infancia e inclusión social, solicitar valoraciones de dependencia, gestión de tarjetas de estacionamiento, carga y consulta de información de los servicios gestionados por la Diputación.

19 - Ekitaldiak

19 - Ekitaldiak

Zerbitzu honen bidez, ekitaldietara joaten den publikoa kudea daiteke Gonbidapenak bidaltzeko eta berrespenak jasotzeko fasea, sarrerak, oroigarriak, mailinga, eta abar kudeatzen ditu.

Se trata de un servicio que permite la gestión del público asistente a eventos. Gestiona la fase de envío de invitaciones, recepción de confirmaciones, entradas, recordatorios, mailing, etc.

Ekitaldia egin bitartean sarbideak kontrolatzeko ere balio du, QR kodeak eta aplikazio mugikorrak erabiliz; horrela, pertsonen joan-etorria denbora errealean monitoriza daiteke.

También permite al control de accesos durante el evento, mediante la utilización de códigos QR y aplicaciones móviles, posibilitando la monitorización en tiempo real del flujo de asistentes.

20 - Open Datako Plataforma

20 - Plataforma de Open Data

Arloko araudian ezarritako irizpideen arabera, berrerabilgarri-kategoria duen informazioa herritarren esku jartzeko plataforma-zerbitzu bat eskaintzen da.

Se ofrece un servicio de plataforma que pone a disposición de la ciudadanía la información que tenga la categoría de reutilizable conforme los criterios establecidos en la normativa que regula dicha materia.

21.- Sinadura-euskarria

21.- Portafirmas

Moduluaren bidez, sinadura elektronikoak plataformak kudeatzen dituen izapideetan integra daiteke, agiri-fluxuak itxita edota prozesua aurrera eramaten jarraituta, definitu bezala. Erabiltzen diren sinadura elektronikoko sistemak legediak gaitu eta baliozkotutakoak dira, eta baliozkotasuna eta eraginkortasun juridikoa gordetzen duten agiriak sortzen dira.

El Módulo permite integrar la firma electrónica en los diferentes trámites gestionados por la Plataforma, cerrando flujos documentales o continuando el proceso conforme se haya definido. Los sistemas de firma electrónica utilizados incluyen los legalmente habilitados y válidos por la legislación, generando documentos que mantienen su validez y eficacia jurídica.

22.- E-Learning Plataforma

22.- Plataforma de E-Learning

Plataformak erabiltzaileen prestakuntza-ibilbidea planifikatzen du, interesekoak zaizkien ikastaroen bidez; aldian behin jakinarazten ditu moduluan sartzen diren berritasunak; ezagutza biltegiratzen du, behar bezainbeste aldiz berrerabiltzeko; ezagutzaren aurrerapena kontrolatzea eta monitorizatzea ahalbidetzen du; parte-hartzea sustatzen du; eta erabiltzaile berriak arin eta eraginkortasunez gehitzen ditu.

La Plataforma planifica el itinerario formativo de los usuarios a través de diferentes cursos que le sean de interés, ofrece periódicamente las novedades que se incorporen al módulo, almacena el conocimiento para que sea reutilizable tantas veces como sea necesario, permite control y monitorizar el avance en el conocimiento, fomenta la participación e incorpora nuevos usuarios de una forma rápida y eficaz.

**2.2. - Biscaytik Proiektuko Zerbitzu Osagarriak**.

**2.2. - Servicios Complementarios Del Proyecto Biscaytik.**

Goian deskribatu diren zerbitzuez gain, BiscayTIK Proiektuak beste zerbitzu batzuk gehituz eransten die balioa bere plataformei, zerbitzu nagusien osagarri, eta haien baldintza bereziak nahiz bakoitza abian jartzea haiek garatzeko hitzarmen edo akordio berezi batean edo batzuetan ezarrita egongo dira:

Además de los servicios anteriormente descritos, el Proyecto BiscayTIK aporta valor a sus plataformas añadiendo otros servicios que complementan los principales, cuyos concretos términos y condiciones así como la puesta en marcha de cada uno de ellos estarán establecidos en uno o varios convenio/s o acuerdo/s específico/s de desarrollo:

1 - Erabiltzaileei laguntza emateko zerbitzua

1 - Servicio de asistencia a usuarios

BiscayTIK Fundazioak Toki-erakundeari, azken horrek hala eskatuta, zerbitzu batzuk emango dizkio Udal Kudeaketarako Sistema Integrala

La Fundación BiscayTIK prestará a la Entidad Local, en caso de que ésta lo requiera, servicios que estarán orientados a resolver las incidencias

erabiltzean erakundeko pertsonalari sortzen zaizkion gorabeherak ebazteko.

que puedan surgir al personal de la misma en el uso del Sistema Integral para la Gestión Municipal.

Zerbitzu asko ematen dituen proiektu bat da BiscayTIK; hartara, funtsezkoa da erabiltzaileei lagungarria izango zaien erabiltzaileei laguntza emateko zentro bat (CAU) egotea.

BiscayTIK es un proyecto que ofrece numerosos servicios, por lo que la existencia de un Centro de Asistencia a Usuarios (CAU) que sirva de ayuda a las personas usuarias es fundamental.

Erabiltzaileek telefonoz jarri ahalko dira harremanetan haien kontsultei arreta emateko esleitutako pertsonalarekin; azken horien helburua, hain zuzen, kontsultez arduratzea, haiek diagnostikatzea eta ebaztea da, gogobeteko eran, ebazteko denborari, kalitateari eta emandako arretari dagokienez.

Las personas usuarias podrán contactar por teléfono con el personal habilitado para atender sus consultas, que tendrán como objetivo atenderlas, diagnosticarlas y resolverlas de una forma satisfactoria en términos de tiempo de resolución, calidad y atención prestada.

Laguntza emateko zerbitzu hau aurrez aurrekoa ere izango da, in-situ egongo diren agente batzuekin, toki-erakundearen instalazioetan bertan laguntza emateko moduan.

Este servicio de asistencia también tendrá una vertiente presencial, con agentes in-situ que podrán dar soporte en las propias instalaciones de la entidad local.

2 - Erabiltzaileei prestakuntza emateko zerbitzua

2- Servicio de formación a usuarios

BiscayTIK Fundazioak Toki-erakundeari, hark hala eskatuz gero, Toki-erakundeko pertsonalari prestakuntza emateko zerbitzuak emango dizkio, BiscayTIKek bere zerbitzuen artean eskaintzen dituen aplikazio eta moduluak erabiltzen moldatzeko.

La Fundación BiscayTIK prestará a la Entidad Local, en caso de que ésta lo requiera, servicios de formación del personal de la Entidad Local con objeto de que se adapten al manejo y utilización de las distintas aplicaciones y Módulos que ofrece BiscayTIK dentro de sus servicios.

3- Segurtasuneko kontsultoretza eta aholkularitza emateko zerbitzua

3- Servicio de consultoría y asesoramiento de seguridad

BiscayTIK Fundazioak Toki-erakundeari, hark hala eskatuz gero, segurtasun-arloko kontsultoretza eta aholkularitzako zerbitzuak emango dizkio, datu pertsonalen babesaren arloko ezarpen-planak taxutzeko.

La Fundación BiscayTIK prestará a la Entidad Local, en caso de que éste lo requiera, servicios de consultoría y asesoramiento de seguridad para la realización de planes de implantación en materia de protección de datos de carácter personal.

4- Sistemak administratu eta mantentzeko zerbitzua

4- Servicio de administración y mantenimiento de sistemas

BiscayTIK Fundazioak Toki-erakundeari, hark hala eskatuz gero, BiscayTIK Sistema Informatikoa administratzeko zerbitzuak emango dizkio,

La Fundación BiscayTIK prestará a la Entidad Local, en caso de que éste lo requiera, servicios de administración del Sistema Informático

erabiltzaile berriei alta emateko lanak eginez eta lehendik badauden erabiltzaileen baimenetan aldaketak eginez, maisu-datuak kudeatuz, etab.

BiscayTIK, realizando tareas de alta de nuevos usuarios y modificaciones de permisos de los existentes, gestión de datos maestros, etc.

Era berean, BiscayTIK Fundazioa BiscayTIK Sistema Informatikoa eguneratua mantentzeaz arduratuko da, sisteman doikuntza eta hobekuntza funtzional zein teknologikoak gehituz, bai arauen aldaketei, bai denborarekin Toki-erakundeari sorturiko beharrizan berriei egokitzeko, azken xedea sistema beti erabiltzeko egoera onenean egon dadin dela. Mantentze-zerbitzu horiek aurrera eramateko, BiscayTIK Fundazioak beharrezko ekintzak eta gestioak egingo ditu, eta halakoen norainokoa nahiz mantentze-zerbitzua emateko baldintzak akordio edo hitzarmen berezi batean zehaztuko dira.

Igualmente Fundación BiscayTIK se ocupará de mantener actualizado el Sistema Informático BiscayTIK incorporando en él ajustes y mejoras funcionales y tecnológicas, de cara a adecuarlo tanto a los cambios normativos así como a las nuevas necesidades que le vayan surgiendo a la Entidad Local con el tiempo, con la finalidad última de que siempre se encuentre en las mejores condiciones de uso. Para llevar a cabo estos servicios de mantenimiento la Fundación BiscayTIK realizará todas las acciones y gestiones necesarias, detallándose su alcance, así como los términos y las condiciones de la prestación del servicio de mantenimiento, en un acuerdo o convenio específico.

5- Telekomunikazio Zerbitzua

5- Servicio de telecomunicación

BiscayTIK Fundazioak definituko ditu telekomunikazio-politikak, eta Alderdi guztiek nahitaez bete beharrekoak izango dira. BiscayTIK Fundazioak aholkularitza-zerbitzu hau emango dio Toki-erakundeari, baldin eta hark hala eskatzen badu eta hitzarmen edo akordio berezi batean jasotzen bada, halakoan zerbitzuen baldintzak araututa.

Las políticas de telecomunicación serán definidas por la Fundación BiscayTIK y serán de obligado cumplimiento para todas las Partes. La Fundación BiscayTIK prestará este servicio de asesoramiento a la Entidad Local, siempre y cuando ésta así lo requiera y sea objeto de un Convenio o acuerdo Específico en el que se regulen los términos y condiciones de dichos servicios.

6- BiscayTIK Sistema Informatikoan sartzeko eta erabiltzeko baimen-zerbitzua-

6- Servicio de autorización de acceso y utilización del Sistema Informático BiscayTIK

BiscayTIK Fundazioak Toki-erakundeari, hark hala eskatuz gero, BiscayTIK Sistema Informatikoan sartzeko eta hura erabiltzeko baimen-zerbitzuak emango dizkio.

La Fundación BiscayTIK prestará a la Entidad Local, en caso de que éste lo requiera, los servicios de autorización de acceso y utilización del Sistema Informático BiscayTIK.

7.- BiscayTIK Sistema Informatikotik informazioa erauzteko zerbitzua

7.- Servicio de extracción de información del Sistema Informático BiscayTIK

BiscayTIK Fundazioak Toki-erakundeari, hark hala eskatuz gero, BiscayTIK Sistema Informatikotik informazioa erauzteko zerbitzuak emango dizkio, Hitzarmen Markoa eta hura garatzeko hitzarmen edo akordio bereziak suntsiarazten direnerako. Erauzketatik lortutako datuen sistema,

La Fundación BiscayTIK prestará a la Entidad Local, en caso de que éste lo requiera, los servicios de extracción de información del Sistema Informático BiscayTIK para los casos en los que el Convenio Marco y los convenios o acuerdos específicos para su desarrollo fueran resueltos. El

metodologia, formatua eta emaitza aurretiaz adostu beharko dira hitzarmen berezi batean, erauzketaren kostua toki-erakunde eskatzailearen kontura izango dela aurreratuta.

sistema, metodología, formato y resultado de los datos obtenidos de la extracción deberá ser previamente consensuado en un Convenio Específico, anticipando que el coste de dicha extracción deberá correr a cargo de la Entidad Local solicitante.

8- BiscayTIK Proiektuaren azpiegitura

8- Infraestructura del Proyecto BiscayTIK

BiscayTIK Proiektuaren arkitekturak azken teknologiak ditu euskarri, sistema eskalagarri, seguru eta oso eskuragarriak ematen aldera. Azpiegitura seguru eta sendoa da, segurtasunaren nahiz zerbitzuaren jarraitutasunaren aldetik segurtasun-maila handia bermatzen duena.

La arquitectura del Proyecto BiscayTIK se apoya en las últimas tecnologías con el fin de proporcionar sistemas escalables, seguros y altamente disponibles. Se trata de una infraestructura segura y robusta garantizando un alto nivel de seguridad y continuidad de servicio.

9 - Administrazio Elektronikoko aholkularitza juridikoa emateko zerbitzua

9 - Servicio de asesoramiento jurídico en Administración Electrónica

BiscayTIK Fundazioak hala eskatzen duten toki-erakundeei elkarlaneko eta orientazioko aholkularitza juridiko bat emango die, izenpetutako akordioak –Hitzarmen Markoa zein hitzarmen espezifikoak– aurrera eramateko eta proiektua gauzatzeari zuzenean lotutako ekintza gomendagarrien nondik norakoak proposatuta.

La Fundación BiscayTIK prestará a las Entidades Locales, que así lo requieran, un asesoramiento jurídico de carácter colaborativo y orientativo, proponiendo las pautas de las acciones recomendables a ejecutar para la correcta implementación de los diferentes Acuerdos suscritos, tanto el Convenio Marco como los correspondientes específicos, que tengan relación directa con la ejecución del proyecto.

10- Sentsibilizazio-ekitaldiak

10- Eventos de sensibilización

BiscayTIK Fundazioak aldian behin dibulgaziozko ekitaldiak sustatzen eta bultzatzen ditu, toki-erakundeentzat interesgarriak izan daitezkeen gaien ezagutzaz sentsibilizatzen dutenak. BiscayTIK Fundazioak ekitaldi horietara joateko gonbidapenak egingo ditu, parte-hartzaile kopuru mugatu batekin, edukiera ere hala izanda.

La Fundación BiscayTIK promueve e impulsa periódicamente eventos divulgativos que sensibilizan sobre el conocimiento de materias que pueden ser de interés para las Entidades Locales. La Fundación BiscayTIK realizará estas invitaciones a dichos actos, siendo limitado el número de participantes por cuestiones de aforo.

**3.- BISCAYTIK PROIEKTUA HANDITZEA**

**3.- AMPLIACIÓN DEL PROYECTO BISCAYTIK**

Kontuan izanda BiscayTIK Proiektua Bizkaiko toki-erakundeen beharrizanei konponbideak eskaintzeko garatu dela, eta beharrizan horiek etengabe bilakatzen ari direla, BiscayTIK Fundazioaren xedea da albait gehien saiatzea BiscayTIK Proiektua etorkizuneko eskakizun

Teniendo en cuenta que el Proyecto BiscayTIK ha sido desarrollado para ofrecer soluciones a las necesidades de las Entidad Locales de Bizkaia y que estas necesidades están en constante evolución, la Fundación BiscayTIK tiene la intención de hacer sus mejores esfuerzos en

berriei egokitzen. Ildo horretan, Toki-erakundeak etorkizunean konponbide berriei buruzko hitzarmenak egin ahalko ditu, eta halakoak erabili, BiscayTIK plataforma elektronikoaren zerbitzu berriak garatzen direnean edo udal-kudeaketarako Zerbitzu Osagarri berriak ematen direnean.

adaptar el Proyecto BiscayTIK a las nuevas exigencias que pudieran generarse en el futuro. En este sentido, la Entidad Local mediante el desarrollo de nuevos servicios de la plataforma electrónica BiscayTIK o la prestación de nuevos Servicios Complementarios de gestión municipal podrá conveniar y utilizar en el futuro nuevas soluciones.

**4.- ALDERDIEN BETEBEHARRAK**

**4.- OBLIGACIONES DE LAS PARTES**

**4.1.- BiscayTIK Fundazioaren betebehar orokorrak**

**4.1.- Obligaciones Generales de la Fundación BiscayTIK**

Orokorrean, BiscayTIK Fundazioak honako betebehar hauek hartzen ditu bere gain:

a. Toki-erakundearen esku jartzea Hitzarmen Marko honetan jasotako konponbide teknologikoak, hitzarmen berezietan deskribatutako zehaztapen teknikoen arabera; azken horiek Alderdien artean adostu beharko dira, atxikitako zerbitzu zehatzak definituta, halakoak denborarekin gehitu edo gutxitu ahalko direla.

b. Hitzarmen Marko honetan jasotzen diren konponbide teknologikoei lotutako zerbitzuen jarraitutasuna bermatzea, proposatutako konponbideen eskalagarritasuna, sendotasuna, eskuragarritasuna, osotasuna eta konfidentzialtasuna bermatuta.

c. Toki-erakundeari aurrez aurreko saioak ematea BiscayTIK Fundazioaren lokaletan, interesekoak zaizkion plataformazko funtzionalitateak erakusteko.

f. Beharrezko baliabideak esleitzea konponbideak erabiltzean sortutako kontsultak eta gorabeherak argitzeko eta konpontzeko.

g. Beharrezko segurtasun-neurriak hartu eta

Con carácter general, la Fundación BiscayTIK asume las siguientes obligaciones:

a. Poner a disposición de la Entidad Local las soluciones tecnológicas previstas en el presente Convenio Marco conforme a las especificaciones técnicas que se describan en los Convenios Específicos, que deberán ser acordados por ambas Partes, definiendo los concretos servicios adheridos, que podrán incrementarse o reducirse en el tiempo.

b. Garantizar la continuidad en la prestación de los servicios asociados a las soluciones tecnológicas incluidas en el presente Convenio Marco asegurando la escalabilidad, robustez, disponibilidad, integridad y confidencialidad de las soluciones propuestas.

e. Proporcionar a la Entidad Local sesiones presenciales en los locales de la Fundación BiscayTIK en los que se muestren las funcionalidades de las plataformas que le sean de interés.

f. Asignar los recursos necesarios para atender y resolver las consultas e incidencias derivadas del uso de las soluciones.

g. Adoptar y cumplir las medidas de

betetzea, informazioa nahiz Hitzarmen Marko honetan jasotzen diren konponbide teknologikoei lotutako sistemak behar bezala babesteko, informazioaren konfidentzialtasuna bermatzeko beharrezkoak diren Segurtasun Politikak ezarrita.

h. Hitzarmen Marko honetan jasotako konponbide bakoitzaren arloan sortzen diren berritasunak jakinaraztea.

i. Hala eskatzen duten toki-erakundeei elkarlaneko eta orientazioko aholkularitza ematea, izenpetutako akordioak aurrera eramateko ekintza gomendagarrien nondik norakoak proposatuta.

j. Beste zerbitzu, beharrizan edo hobekuntzak proposatzea eta haietan elkarlanean aritzea, Bizkaiko gainerako toki-erakundeentzat erabilgarriak izango diren aplikazio berriak garatzea eta abian jartzea ekar dezaketen kasuetan.

**4.2.- Toki-erakundearen betebehar orokorrak**

Orokorrean, Toki-erakundeak honako betebehar hauek hartzen ditu bere gain:

a. Beren eskumenen esparruan, Hitzarmen Marko honetan jasotako konponbide teknologikoen zehaztapenak betetzea, bai eta etorkizunean izenpetutako hitzarmen berezietan jasotakoak ere.

b. Hitzarmen Marko honetan identifikatutako eta dagozkien hitzarmen berezietan zehaztutako konponbideak ezartzeko beharrezkoak diren lan teknikoetan laguntzea.

c. Lotutako zerbitzuen errendimendu- eta

seguridad necesarias para proteger debidamente la información y los sistemas asociados a soluciones tecnológicas incluidas en el presente Convenio Marco, estableciendo las Políticas de Seguridad necesarias para garantizar la confidencialidad de la información.

h. Informar de las novedades que se produzcan en el ámbito de cada solución incluida en el presente Convenio Marco.

i. Prestar a las Entidades Locales que así lo requieran un asesoramiento colaborativo y orientativo, proponiendo las pautas de las acciones recomendables a ejecutar para la correcta implementación de los diferentes Acuerdos suscritos

j. Proponer y colaborar en otros servicios, necesidades o mejoras que pudieran desembocar en el desarrollo y puesta en marcha de nuevos aplicativos que sean de utilidad al resto de Entidades Locales de Bizkaia

**4.2.- Obligaciones generales de la Entidad Local**

Con carácter general, la Entidad Local asume las siguientes obligaciones:

a. Cumplir, dentro del ámbito de sus competencias, las especificaciones técnicas de las soluciones tecnológicas incluidas en el presente Convenio Marco, así como en los Convenios Específicos que se suscriban en el futuro.

b. Colaborar en las labores técnicas necesarias de despliegue de aquellas soluciones identificadas en el presente Convenio Marco y que se especifiquen en los correspondientes Convenios Específicos.

c. Ayudar y concertar con la Fundación

monitorizazio-probak adostea BiscayTIK Fundazioarekin, eta haietan laguntzea, zerbitzuon eskuragarritasuna bermatzeko.

BiscayTIK la realización de pruebas de rendimiento y de monitorización de los servicios asociados para asegurar la disponibilidad de los mismos.

d. Hitzarmenetan jasotako konponbideak zuzen erabiltzea, erakundea baimenduta dagoen horretarako bakar-bakarrik erabilita.

d. Hacer un uso correcto de las soluciones conveniadas, empleándolas exclusivamente para aquello a lo que está autorizada.

e. BiscayTIK Fundazioari hitzarmenetan jasotako zerbitzuak ematean gertatzen diren gorabehera guztien berri ematea, eta halakoak detektatzen, diagnostikatzen eta konpontzen laguntzea.

e. Comunicar a la Fundación BiscayTIK todas las incidencias que puedan ocurrir durante la prestación de los servicios conveniados, colaborando en la detección, diagnóstico y resolución de las mismas.

f. Kontaktu operatiboak ematea eta eguneratzea, konponbide bakoitzari dagokion arduradunak batez ere, hitzartutako konponbideak eraginkortasunez ezartzea lortzeko.

f. Proporcionar y actualizar los contactos operativos, sobre todo los responsables correspondientes de cada solución para conseguir un despliegue eficaz de las soluciones concertadas.

g. Hitzarmen berezietan jasotako konponbide teknologikoen aplikazio eta sistemen erabiltzaileak administratzeko BiscayTIK Fundazioak ezarritako prozedurak betetzea.

g. Cumplir con los procedimientos establecidos por la Fundación BiscayTIK para administrar los usuarios de las aplicaciones y sistemas de las soluciones tecnológicas incluidas en los diferentes Convenios Específicos.

h. Beharrezko segurtasun-neurriak hartu eta betetzea, informazioa nahiz hitzarmen honetan jasotzen diren konponbide teknologikoei lotutako sistemak behar bezala babesteko, ezarritako segurtasun politikatik dagozkion atalak beteta.

h. Adoptar y cumplir aquellas medidas de seguridad necesarias para proteger debidamente la información y los sistemas asociados a las soluciones tecnológicas incluidas en el presente Convenio, adoptando aquellas partes de la Política de Seguridad que se establezca.

i. Hala jasotzen duten konponbide teknologikoetan, hitzarmen berezietan atxikitako zerbitzuak emateko beharrezkoa den lege, administrazio eta teknikaren arloko informazioa deskribatzeko dokumentuak eguneratzen laguntzea.

i. Colaborar en la actualización, para aquellas soluciones tecnológicas que así lo contemplen, de los documentos que describan la información legal, administrativa y técnica necesaria para prestación de los servicios adheridos en los Convenios Específicos.

j. Toki-erakundeek beste zerbitzu,

j. Las Entidades Locales podrán proponer

beharrizan edo hobekuntza batzuk proposatu ahalko dituzte, Bizkaiko gainerako toki-erakundeentzat erabilgarriak izango diren aplikazio berriak garatzea eta abian jartzea ekar lezaketenak. Proposamen horiek aztertzeko lantalde bat eratuko da, eta hark hainbat ikuspuntutatik analizatuko ditu (juridikoa, ekonomikoa, antolaketa-arlokoa, eta instituzionala), produktu berritzaile, eraginkor eta bideragarriak sortzeko helburuz.

otros servicios, necesidades o mejoras que pudieran desembocar en el desarrollo y puesta en marcha de nuevos aplicativos que sean de utilidad al resto de Entidades Locales de Bizkaia. Las propuestas se estudiarán mediante la conformación de un Grupo de Trabajo que analizará la iniciativa desde las diferentes perspectivas jurídica, económica, organizativa e institucional con el fin de ofrecer productos innovadores, eficientes y viables.

## 5.- HITZARMEN MARKOAREN IRAUPENA

Hitzarmen honen indarraldia lau urtekoa izango da, izenpetzen denetik zenbatzen hasita. Edozein unetan, indarraldia bukatu baino lehen, Alderdi parte-hartzaileek lankidetza-akordioaren luzapena adostu ahalko dute, beste lau urte arte.

Aurrekorako eragozpena izan gabe, Hitzarmen Markoa azkentzeak haren mendeko hitzarmen berezi guztien azkentze automatikoa ekarriko du berekin. Hitzarmen Markoa azkendu denean, edozein hitzarmen berezi banaka iraunarazteko proposatzen bada, hitzarmen-harreman berri bat ezarri beharko da, egoera hori berritu eta arautuko duena.

Hitzarmen Markoa, edozein arrazoi dela eta, suntsiarazten bada, BiscayTIK Sistema Informatikotik informazioa erauzteko zerbitzuak emango ditu BiscayTIK Fundazioak, aurreko 2.2.7 klausulan ezarritako modu eta baldintzetan.

## 5.- DURACIÓN DEL CONVENIO MARCO

El presente convenio tendrá una vigencia de cuatro años a contar desde la firma del mismo. En cualquier momento antes de la finalización del periodo de vigencia las Partes intervinientes podrán acordar la prórroga del acuerdo de colaboración por un periodo de hasta cuatro años adicionales.

Sin perjuicio de lo anterior, la extinción con Convenio Marco conllevará la extinción automática de todos los Convenios Específicos que pendan del mismo. La propuesta de mantenimiento individualizado de cualquier Convenio Específico habiéndose extinguido el Convenio Marco, requerirá de una nueva relación Convenial que nove y regule dicha situación.

En el caso de que el Convenio Marco quedara resuelto por cualquier causa, la Fundación BiscayTIK proporcionará los servicios de extracción de información del Sistema Informático BiscayTIK en los términos y condiciones previstos en la Cláusula 2.2.7 anterior.

## 6.- HITZARMEN MARKOA SUNTSIARAZTEA

Hitzarmen Markoa azkentzen da haren xedea osatzen duten jarduerak betetzean edo suntsiarazteko arrazoia sortzean. Horri buruzko araudian xedatuta dagoenez, honako hauek jotzen dira suntsiarazteko arrazoitzat:

a) Hitzarmenaren indarraldia igarotzea, haren

## 6.- RESOLUCIÓN DEL CONVENIO MARCO

El Convenio Marco se extingue por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto o por incurrir en causa de resolución. Tal y como indica la normativa al respecto, se consideran causa de resolución:

a) El transcurso del plazo de vigencia del convenio

luzapena adostu gabe.

sin haberse acordado la prórroga del mismo.

b) Izenpetzaile guztien adostasuna.

b) El acuerdo unánime de todos los firmantes.

c) Izenpetzailetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.

c) El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de alguno de los firmantes.

d) Hitzarmenaren deuseztasuna deklaratzen duen erabaki judiziala.

d) Por decisión judicial declaratoria de la nulidad del convenio

e) Aurrekoen artean ez dagoen eta legeetan jasota dagoen beste edozein arrazoi.

e) Por cualquier otra causa distinta de las anteriores prevista en otras leyes.

**7.- ALDERDIEN INDEPENDENTZIA**

Hitzarmen Marko honen ondorioz Alderdien artean sortutako harremana hitzarmengile independente arteko harreman bat da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean honelako akordioetarako ezarritako araubide juridikotik datorrena. Alderdiek onartzen dute Hitzarmen Marko honek ez duela inolako lan-harremanik edo sozietate-harremanik sortzen Alderdien artean, eta konpromiso juridiko jakin eta galdagarri batzuk dakartzala berekin, baina ez diola inola ere eskualdatzen edo lagatzen Toki-erakundearen eskumenik BiscayTIK Fundazioari. Hitzarmen marko hau izenpetzeak, hitzarmen bereziekin batera, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetzen du, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera errazten du, onura publikoko jarduerak egiten laguntzen du, eta aurrekontu-egonkortasun eta finantza-jasangarritasunari buruzko legedia betetzen du, baina ez dio alderdietako bati biderik ematen bestearen ordezkari jarduteko edo bere burua halakotzat aurkezteko.

**7.- INDEPENDENCIA DE LAS PARTES**

La relación entre las Partes derivada del presente Convenio Marco es una relación entre conveniantes independientes, derivada del régimen jurídico establecido para este tipo de acuerdos en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público. Las Partes reconocen que el presente Convenio Marco no crea ningún tipo de relación laboral, ni societaria entre las Partes, suponiendo compromisos jurídicos concretos y exigibles, pero que en ningún caso traslada ni cede la competencia de la Entidad Local a la Fundación BiscayTIK en ningún aspecto relativo a las materias conveniadas. La suscripción de este Convenio Marco, conjuntamente con los Convenios Específicos, mejora la eficiencia de la gestión pública, facilita la utilización conjunta de medios y servicios públicos, contribuye a la realización de actividades de utilidad pública y cumple con la legislación de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera, pero no permite a ninguna de ellas actuar o presentarse ante terceros como representante del otro.

**8.- ARAUBIDE EKONOMIKOA**

Lankidetza-hitzarmen honek ez du eragiten bera izenpetzen duten alderdien arteko betebehar ekonomikorik, ez eta haren mendeko hitzarmen bereziek ere.

**8.- RÉGIMEN ECONÓMICO**

Este Convenio de colaboración ni los Convenios Específicos que penden del mismo, no comportan obligaciones económicas entre las partes firmantes.

## 9.- DATU PERTSONALEN BABESA

### 9.1.- Datu pertsonalen babesari buruzko araudiaren aplikagarritasuna

BiscayTIK Fundazioak Hitzarmen Marko honetan jasotzen diren zerbitzuak Toki-erakundeari emateko, beharrezkoa da BiscayTIK Fundazioak datu pertsonal jakin batzuetan sarbidea izan dezan, Toki-erakundea datu horien tratamenduaren arduraduna delarik, hain zuzen.

Aurrekoa oinarri dela, eta eragozpena izan gabe 9. klausula honetan jasotako gainerako xedapenetarako zein Hitzarmen Marko hau garatzeko akordio edo hitzarmen berezietan ezartzen diren baldintza partikularretarako, Alderdiek beren gain hartzen dute Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (aurrerantzean, “DBEO”) nahiz Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (aurrerantzean, “DBLO”) ezarritako xedapenak betetzeko konpromisoa, edo hura ordezten duen arauan ezarritakoak.

### 9.2.- Toki-erakundea: tratamenduaren arduraduna

Toki-erakundea da, datu pertsonalak babesteari buruzko araudian ezarritako eragina izan dezan, BiscayTIK Fundazioaren informazio-sistemetan euskarria ematen zaien eta Hitzarmen Marko honen babespean dauden datu pertsonalen eta tratamenduen arduraduna. Horri dagokionez, Toki-erakundeak bere betebehar guztiak bete behar ditu, formalak, materialak zein segurtasunekoak, tratamendu horien inguruan, datu eta fitxategiek eragiten dieten hitzartutako elementuak ekoizpenean ezarri baino lehen. Hori dela-eta, Toki-erakundeak erantzukizun-mota orotatik aske uzten du BiscayTIK Fundazioa, Hitzarmen Marko hau garatzeko hitzarmen edo

## 9.- PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

### 9.1.- Aplicabilidad de la normativa sobre protección de datos de carácter personal

Para la prestación de los distintos servicios previstos en el presente Convenio Marco por parte de la Fundación BiscayTIK a favor de la Entidad Local, resulta necesario que la Fundación BiscayTIK tenga acceso a determinados datos de carácter personal de cuyo tratamiento es responsable la Entidad Local.

Sobre la base de lo anterior, y sin perjuicio de las demás disposiciones previstas en la presente Cláusula 9 y de las estipulaciones particulares que se establezcan en los acuerdos o convenios específicos para el desarrollo del presente Convenio Marco, las Partes se comprometen a cumplir con las disposiciones establecidas en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos (en adelante “RGPD”) y de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales (en adelante, la “LOPD”) o de la norma que la sustituya y desarrolle.

### 9.2.- La Entidad Local: Responsable del Tratamiento

La Entidad Local, a los efectos de lo establecido en la normativa de protección de datos de carácter personal, es responsable de los datos personales y de los tratamientos que se soporten bajo los sistemas de información que ofrece la Fundación BiscayTIK, y que se encuentran bajo el amparo del presente Convenio Marco. A este respecto, la Entidad Local debe cumplir todas sus obligaciones formales, materiales y de seguridad respecto a dichos tratamientos, previo a la implantación en producción de los elementos acordados afectados por datos y ficheros. Por dicho motivo, la Entidad Local exime de cualquier tipo de responsabilidad a la Fundación BiscayTIK

akordio berezietan sarturiko datu edo tratamenduen legezkotasunean, proportzionaltasunean, edo egokitasunean oinarritzen den edozein erreklamazioren aurrean.

respecto a cualquier reclamación que se fundamente en la legalidad, proporcionalidad, adecuación de los datos o tratamientos incluidos en los distintos convenios o acuerdos específicos de desarrollo del presente Convenio Marco.

Toki-erakundeak datuak babesteko ordezkari bat izendatuta dauka, x karguaren bidez definitua, eta hurrengo helbidearen bidez jarri ahalko da harremanetan berarekin: xxx

La Entidad Local tiene designado un delegado de protección de datos, definido en el cargo de xxxx y podrá ponerse en contacto a través de la siguiente dirección xxx

Nolanahi ere, Toki-erakundeak honako betebehar hauek hartuko ditu bere gain, Hitzarmen Markoan nahiz hitzarmen berezietan deskribaturiko zerbitzua eman aurretik zein ematen ari den bitartean:

a) BiscayTIK Fundazioari zerbitzuaren xede diren datuak ematea.

b) Ebaluazio bat egitea, hala dagokionean, BiscayTIK Fundazioak egitekoak diren tratamendu-eragiketek datu pertsonalen babesean duten inpaktuari buruz.

c) Aurretiazko kontsulta egokiak egitea.

d) Aurretiaz eta tratamenduak dirauen bitarte guztian, berak eta BiscayTIK Fundazioari ematen dizkion jarraibideek DBEO betetzen dutela zaintzea.

e) Tratamendua gainbegiratzea, auditoriak egitea barne.

En todo caso, la Entidad local se obliga a realizar, previa y coetáneamente a la prestación del servicio descrito en el Convenio Marco como en los diferentes Convenios Específicos:

a) Entregar a Fundación BiscayTIK los datos objeto del servicio

b) Realizar, en su caso, una evaluación del impacto en la protección de datos personales de las operaciones de tratamiento a realizar por Fundación BiscayTIK.

c) Realizar las consultas previas que corresponda.

d) Velar, de forma previa y durante todo el tratamiento, por el cumplimiento del RGPD por su parte y de las instrucciones indicadas a la Fundación BiscayTIK.

e) Supervisar el tratamiento, incluida la realización de auditorías.

**9.3.- BiscayTIK Fundazioa: tratamendu-eragilea**

Aurrekoan oinarrituta, eta Toki-erakundearen eta BiscayTIK Fundazioaren arteko zerbitzuak emateko harremanaren esparruan, Hitzarmen Marko hau garatzeko Alderdien artean izenpeturiko hitzarmen edo akordio berezien bidez formalizatua, BiscayTIK Fundazioak datu

**9.3.- Fundación BiscayTIK: Encargado del tratamiento**

Sobre la base de lo anterior, y en el marco de la relación de prestación de servicios entre la Entidad Local y la Fundación BiscayTIK formalizada mediante los correspondientes convenios o acuerdos específicos de desarrollo del presente Convenio Marco que se suscriban

pertsonalen "tratamendu-eragile" izaera izango du, halako datuetarako sarbidea ematen zaionean, Hitzarmen Marko hau garatzeko hitzarmen edo akordioen xede diren zerbitzuak eman ahal izateko.

entre las Partes, la Fundación BiscayTIK tendrá el carácter de "encargado del tratamiento" de los datos de carácter personal a los que se le dé acceso con objeto de que pueda prestar los servicios objeto de los convenios o acuerdos de desarrollo del presente Convenio Marco.

BiscayTIK Fundazioak ezingo ditu erabili Toki-erakundearen ardurapean dauden datu pertsonalak Hitzarmen Marko honen edo Hitzarmen Marko hau garatzeko hitzarmen eta akordio berezien xede diren zerbitzuak ez beste helburu baterako. BiscayTIK Fundazioak datuak beste helburu baterako erabiltzen baditu, komunikatzen baditu, edo Hitzarmen Markoko edo hitzarmen edo akordio bereziko xedapenak bete gabe baliatzen baditu, tratamenduaren arduraduntzat joko da, eta berak egindako arau-hausteen erantzule izango da. BiscayTIK Fundazioak ez dizkie datuak inola ere komunikatuko, erakutsiko, lagako edo ezagutzera emango Hitzarmen Marko honetan edo hitzarmen edo akordio berezietan ezarritako kontratu-harremanaz kanpoko beste hirugarren batzuei, errekerimendu judiziala edo tratamenduaren arduradunaren baimena dagoenean izan ezik.

La Fundación BiscayTIK, no podrá utilizar los datos de carácter personal bajo responsabilidad de la Entidad Local para un fin distinto al de la prestación de los servicios objeto del presente Convenio Marco y de los convenios y acuerdos específicos que lo desarrollen. En el caso de que la Fundación BiscayTIK destine los datos a otra finalidad, los comunique o los utilice incumpliendo las estipulaciones del Convenio Marco o del convenio o acuerdo específico, será considerado, responsable del tratamiento, respondiendo de las infracciones en que pudiera incurrir personalmente. La Fundación BiscayTIK en ningún caso comunicará, mostrará, cederá ni revelará datos, ni siquiera para su conservación, a terceras personas ajenas a la relación contractual que se establece en el presente Convenio Marco o que se establezca en los convenios o acuerdos específicos, salvo requerimiento judicial o autorización del responsable del tratamiento.

Halaber, Toki-erakundeak emandako jarraibideen arabera baino ez ditu BiscayTIK Fundazioak tratatuko datu pertsonalak. Aurrekoak eraginizan dezan, Toki-erakundeak Toki-erakundeko idazkari kargua betetzen duen pertsona izendatzen du BiscayTIK Fundazioari Toki-erakundearen ardurapeko datuei dagozkien jarraibideak emateko arduradun.

Asimismo, la Fundación BiscayTIK únicamente tratará los datos de carácter personal conforme a las instrucciones proporcionadas por la Entidad Local. A los efectos de lo anterior, la Entidad Local designa a la persona que ejerce el cargo de Secretario de la Entidad Local como la persona encargada de proporcionar a la Fundación BiscayTIK las instrucciones en relación a los datos de carácter personal bajo la responsabilidad de la Entidad Local.

BiscayTIK Fundazioak inbentario bat kudeatuko du dokumentalki arduradunaren kontura egindako tratamendu-jarduera kategoria guztiei buruz; honako hauek jasoko ditu:

- Eragilearen edo eragileen izena eta datuak, bai eta eragilea bera jardunarazten duen arduradun bakoitzarena ere, eta datuak babesteko ordezkariarena, hala dagokionean.

La Fundación BiscayTIK gestionará documentalmente, un inventario de todas las categorías de actividades de tratamiento efectuadas por cuenta del responsable, que contenga:

- Nombre y los datos de contacto del encargado o encargados y de cada responsable por cuenta del cual actúe el encargado y, en su caso, del delegado de protección de datos.

- Arduradunaren kontura egindako tratamenduen kategoriak.
- Teknika- eta antolaketa-arloko segurtasun-neurrien deskribapen bat, halakoak aplikatu behar direnean, honako hauei dagokienez:
  - o Datu pertsonalen pseudonimizazioa eta zifraketa.
  - o Tratamenduko sistema eta zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta erresilientzia bermatzeko ahalmena.
  - o Gorabehera fisiko edo tekniko bat gertatuz gero, datuen eskuragarritasuna eta haietarako sarbidea azkar berrezartzeko ahalmena.

Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko teknika- eta antolaketa-arloko neurrien eraginkortasunaren inguruko egiaztapen, ebaluazio eta balorazioko prozesua.

BiscayTIK Fundazioak bermatzen du datu pertsonalak tratatzeko baimenduta dauden pertsonak datuon konfidentzialtasuna errespetatzera konprometitu direla. BiscayTIK Fundazioak halako informazioa tratatzeko baimenduta dauden pertsonen beharrezko prestakuntza egokia bermatzen du, bai eta prestakuntza hori egin izanaren egiaztagiriak izatea ere, tratamenduaren arduradunarentzat eskuragarri.

BiscayTIK Fundazioak arduradunari laguntza emango dio, tratamenduaren izaera aintzat hartuta, teknika- eta antolaketa-arloko neurri egoki batzuen bidez, ahal den guztietan, interesdunek bere eskubideak erabiltzean arduradunak jasotzen dituen erreklamazioei erantzuteko betebeharra bete ahal izateko.

- Categorías de tratamientos efectuados por cuenta del responsable.
- Una descripción de las medidas técnicas y organizativas de seguridad, en caso de que proceda su aplicación, relativas a:
  - o Seudonimización y el cifrado de datos personales.
  - o La capacidad de garantizar la confidencialidad, integridad, disponibilidad y resiliencia permanentes de los sistemas y servicios de tratamiento.
  - o La capacidad de restaurar la disponibilidad y el acceso a los datos personales de forma rápida, en caso de incidente físico o técnico.

El proceso de verificación, evaluación y valoración regulares de la eficacia de las medidas técnicas y organizativas para garantizar la seguridad del tratamiento.

Fundación BiscayTIK garantiza que las personas autorizadas para tratar datos personales se han comprometido a respetar la confidencialidad de los mismos.Fundación BiscayTIK garantiza la adecuada formación necesaria en materia de protección de datos personales de las personas autorizadas para tratar dicha información, así como acreditar, a disposición del Responsable del Tratamiento, la realización de dicha formación.

Fundación BiscayTIK asistirá al responsable, teniendo cuenta la naturaleza del tratamiento, a través de medidas técnicas y organizativas apropiadas, siempre que sea posible, para que este pueda cumplir con su obligación de responder a las solicitudes que tengan por objeto el ejercicio de los derechos de las personas interesadas.

Nolanahi ere, tratamendu-zerbitzuak ematen bukatzen denean, BiscayTIK Fundazioak datu pertsonalak eta dagoen kopia oro itzuliko dizkio arduradunari edo azken horrek izendatutako beste tratamendu-eragile bati. Erauzketa horrekin batera, dagokion akordioa egingo da, itzulketaren forma, epea, moduak eta zirkunstantziak zehazteko, bai eta BiscayTIK Fundazioaren ekipamendu informatikoetan dauden datuak erabat ezabatzeko modua ere. Hala ere, BiscayTIK Fundazioak behar bezala blokeatutako datuen kopia bat gorde dezake, zerbitzua ematearen ondoriozko erantzukizunak sor daitezkeen bitartean, kontserbazioa eskakizun bat izateaz gain, Europar Batasuneko zuzenbidearen edo Estatu kideetako zuzenbidearen arabera. Datuak erauziko dira 2.2.7 klausulan adierazitako baldintzen arabera.

